ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 13a, ostirala • 131 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

42/2026 Foru Dekretua, azaroaren 10ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, AP-1 eta AP-68 autobideetako diruz lagundu daitezkeen tarteetan ordaindutako bidesarien kostua arintzeko, bai eta 2026ko azaroaren 11tik aurrera AP-68 autobideko diruz lagundu daitekeen tartean ordaindutako bidesariari dagokion deialdia ere

Diputatuen Kontseiluak, otsailaren 5eko 9/2002 Erabakiaren bidez, lurralde historiko horretan bizi diren AP-68 autobideko erabiltzaileek ordaindutako bidesariengatik dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi zituen, eta ondoren aldatu egin ziren. Era berean, otsailaren 5eko 292/2009 Erabakiaren bidez, lurralde historiko horretan bizi diren AP-1 autobidearen erabiltzaileek ordaindutako bidesariengatik dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren, eta horiek ere aldatu egin ziren gerora. Ondoren, ekainaren 12ko 317/2018 Erabakiaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonei AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren, azaroaren 27ko 659/2018 Erabakiaren bidez aldatuak.

Abuztuaren 3ko 39/2021 Foru Dekretuaren bidez, dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onetsi ziren, gaur egun indarrean daudenak.

AP-68 autobidearen emakida araubidea amaitzeak eta 2026ko azaroaren 11tik aurrera aplikatuko diren kudeaketa eta bidesari baldintzak aldatzeak beharrezkoa egiten dute dirulaguntza horien araubidea egokitzea, bereziki AP-68 autobideko zenbatu beharreko ibilbideei eta joan etorrien zenbaketa sistemari dagokienez. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da oinarri arautzaile berriak onestea, gaur egun indarrean daudenak ordezteko eta AP-1 eta AP-68 autobideetako bidesariengatiko dirulaguntzei aplikatu beharreko araubidea jasotzeko.

Foru Gobernuaren Kontseiluaren urriaren 1eko 559/2024 erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea onartu zen, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren AP-1 eta AP-68 autobideen erabiltzaileek ordaindutako bidesaria dela-eta dirulaguntzak kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, diruz lagundu daitezkeen tarteetan. Hitzarmen horrek Arabaten lankidetza arautzen du dirulaguntza horiek izapidetu, kudeatu, kontrolatu eta ordaintzeko. Era berean, hitzarmen horren aldaketa izapidetzen ari da, haren edukia oinarri arautzaile hauetan ezarritako araubidera eta laguntzen eta bidesarien kudeaketaren konfigurazio berrira egokitzeko.

Xedapen hau bat dator 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin. Bereziki, beharrizan- eta eraginkortasun-printzipioei erantzuten die, ezinbestekoa baita dirulaguntzen araubidea AP-68aren emakida-araubidearen amaieraren ondoriozko egoera berrietara egokitzeko eta AP-1 eta AP-68 autobideen erabiltzaileei laguntzen jarraitutasuna bermatzeko. Era berean, proportzionaltasun-printzipioari egokitzen zaio, lortu nahi diren helburuak lortzeko beharrezko neurriak soilik jasotzen dituelako; segurtasun juridikoaren printzipioari, testu osoa, koherentea eta gainerako ordenamendu juridikoarekin integratua onartzen duelako; gardentasun-printzipioari, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen araudian aurreikusitako partaidetza- eta publizitate-izapideak eginez; eta efizientzia-printzipioari, hartzaileei beharrezkoak ez diren administrazio-kargak edo karga osagarriak ezartzen ez dizkielako eta laguntza publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen duelako.

Horregatik, Lehengo diputatu nagusiordea eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren eta AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte dirulaguntzadunak erabiltzeagatik bidesaria ordaintzen duten persona fisikoentzako dirulaguntzen oinarri arauak, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera egiten diren deialdietarako. Arau horiek dekretu honen eranskinean jasota daude.

Bigarrena. Onestea AP-68 autobideko diruz lagun daitekeen tartean ordaindutako bidesariengatik errepide azpiegituren erabiltzaile diren eta Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen deialdi publikoa, 2026ko azaroaren 11tik 2026ko abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Hirugarrena. Onetsitako enkargua betez, 100.000,00 euro esleitzea Arabako Bideak-Vías de Álava erakundearen alde IFZ A01361237 (BP 10000527), AP-68 autobideko diruz lagun daitekeen tartean 2026ko azaroaren 11tik 2026ko abenduaren 31ra bitartean ordaindutako bidesariengatiko dirulaguntzei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontuko 50201. G/441500/48000004 "AP-68ko dirulaguntza, Bizkaiko zatia" aurrekontu aplikazioaren kontura. Zenbateko hori 200.000,00 euroraino handitu ahal izango da gehienez, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu erabilgarritasunaren arabera, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren txostena jaso ondoren eta Mugikortasun eta Garraio zuendariaren oniritziarekin.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik deialdia onetsita duten AP-1 autobideko diruz lagun daitezkeen tarteetan ordaindutako bidesariengatik Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzak deialdia arautu zuen araudian xedatutakoaren arabera eraenduko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 39/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitziren AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesaria erabiltzen duten pertsona fisikoentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, bai eta foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 10a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehengo diputatu nagusiordea eta Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua
JON NOGALES PRIETO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. ERANSKINA

Oinarriak, AP-1 eta AP-68 autobideetako diruz laguntzekoak diren tarteetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik Arabako Bideak-Vías de Álava, SAk (Arabat) emango dituen dirulaguntzak arautzen dituztenak

1. Dirulaguntzen xedea

Oinarri hauen xedea da AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte jakin batzuk erabiltzen dituzten arabarrek ordaintzen dituzten bidesarien kostuei aurre egiteko dirulaguntzak arautzea.

2. Onuradunen betekizunak

Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte aipatutako bide azpiegiturak erabilera pribatuko ibilgailu arin batekin (inolako lanbide, enpresa edo ekonomia jarduerari atxikita ez dagoena) erabiltzen dituzten pertsona fisikoek, ondoko betebehar hauek betetzen badituzte:

a) Ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan izatea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru arauan ezarritakoaren arabera.

b) Aipatu diren bide azpiegitura bidesaridunetako batetik ibiltzea, kasu bakoitzean adierazitako tarte, muga eta zenbatekoekin.

c) Identifikazio eta ordainketa gailu telematiko (OBE) baten titularra izatea, eta haren bidez ordaintzea aurreko paragrafoan adierazi diren bidaldiak.

d) Arabako Foru Ogasunarekiko bere zerga betebeharrak betetzen egunean egotea.

e) Sexu-diskriminazioa egiteagatik zehapen administratibo edo penalik ez izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Inola ere ezin daitezke dirulaguntzaren onuradun izan berdintasun printzipioen aurkako jokaera edo jardunbidea izan duten pertsona fisikoak, ezta ere arau hauste oso larriagatik zigortuak edo administrazio ebazpen edo epai judizial irmo batez kondenatuak izan direnak Langileen Estatutuan edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan tratu eta aukera berdintasunari buruz ezarritako eginbeharrak ez betetzeagatik; sexuagatiko diskriminaziozko erabakiengatik; edo laneko sexu jazarpenagatik, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan (Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako Legea) ezarritakoaren arabera.

f) Dirulaguntzen Foru Arauaren 12. artikuluan ezartzen diren egoeretako batean ere ez egotea. Eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da.

g) Dirulaguntzaren eskabidean aurretiaz atxikitako ibilgailuetako bat erabiltzea.

Betebehar horiek eskaera aurkezteko garaian egiaztatu beharko dira, eta adjudikazio proposamena egiteko eta ordaintzeko garaian mantendu.

3. Dirulaguntzen zenbatekoa

3.1. AP-1 autobidean.

Dirulaguntzak AP-1 autobideko Etxabarri-Ibiña eta Maltzaga arteko ordainlekuetan Arabako Lurralde Historikotik irteten edo bertan sartzen diren gidariek jasoko dituzte; mugak eta zenbatekoak:

Etxabarri Ibiña – Eskoriatza tartea: Hilean 50 bidaldi izango direlarik gehienezko muga, erabiltzaileak ordaindutako kostuaren ehuneko 100 lagunduko da diruz, hileko 15,00 euroko gastuaz gora (BEZa barne). Beraz, gastuen lehenengo 15,00 euroak erabiltzailearen kontura izango dira. Hileko gastua zenbateko horretara heltzen ez bada, ez da izango dirulaguntzarik.

Eskoriatza – Maltzaga tartea: Hilean 50 bidaldi izango direlarik gehienezko muga, erabiltzaileak ordaindutako kostuaren ehuneko 100 lagunduko da diruz, hileko 60,00 euroko gastuaz gora (BEZa barne).

Beraz, gastuen lehenengo 60,00 euroak erabiltzailearen kontura izango dira. Hileko gastua zenbateko horretara heltzen ez bada, ez da izango dirulaguntzarik.

Osterak gertatzen diren ordenan bilduko dira eta mugak egutegiko hilabeteka aplikatuko dira.

Ostera Araban hasten edo amaitzen bada eta aurrean aipatutako tarteetako bat hartzen badu (osorik edo zati bat), tarte bakoitzean egindako bidearen proportzioan kalkulatuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Beraz, ostera Eskoriatzakoa baino lehen dagoen ordainleku batetik haren ondoren dagoen beste baterainokoa bada, bi ostera balira bezala egingo da kalkulua: bata Eskoriatzaraino eta bestea handik helmugaraino. Bidaldi horretatik, lehenengo mugaren barruan kontatuko da dagokion Arabako ordainlekuaren eta Eskoriatzaren arteko bidaldiko tarifa. Eta bigarrenaren barruan, bidaldiaren gainerako zenbatekoa.

Arabako ordainleku baten eta AP-8 autobideko ordainleku baten arteko bidaldietan, jatorri edo helmugatzat (dagokionaren arabera) AP-1 autobidea AP-8rekin lotzen den tokia hartuta aplikatuko da bigarren muga.

3.2. AP-68 autobidean.

Dirulaguntzaren onuradunei aldez aurretik ezartzen zaizkien baldintzak kontuan hartuta, dirulaguntzaren zenbatekoa honela zehazten da:

• Dirulaguntza kalkulatzeko, AP-68 autobidean Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren joan-etorriak hartuko dira kontuan. Zehazki, etorkizunean egin daitezkeen egokitzapenei kalterik egin gabe, Arrigorriaga, Arrankudiaga, Orozko Hegoa, Arrigorriaga AS, Iparraldea eta Orozko Iparrako ordainlekuetan, edo izen baliokideak.

AP-68an diruz lagun daitekeen tarteari dagokion bidesariaren tarifan dirulaguntzak aplikatzearen arabera zehaztuko da zenbatekoa, jarraian zehazten denaren arabera:

• Egindako bidaien zenbateko osoari (BEZa barne) ehuneko 60ko deskontua aplikatuko zaio, betiere hilean 15 bidaia edo gehiago egiten badira. Deialdia hilabetea hasi ondoren hasten edo amaitzen denean, gutxienez 15 bidaiara iristeko, hilabete naturalaren barruan diruz lagundu daitezkeen tarteetan egindako bidaia guztiak zenbatuko dira.

• Bidaiak hurrenkera kronologikoaren arabera zenbatuko dira.

4. Eskaerak aurkeztea

4.1. Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

• www.arabat.eus Arabaten webgunean online izapidetzearen bidez.

• Aurrez aurre, Arabat (Arabako Bideak-Vías de Álava SA) sozietate publikoaren bulegoetan (Vicente Goikoetxea kalea 1, 1. solairua, 4. bulegoa), edo

• Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako beste moduetako edozeinetan.

4.2. Onuradunen errolda bakarra dagoenez gero, eskaera bakar bat onartuko da, bi bide azpiegituren (AP-1ren eta AP-68ren) erabiltzailea izatekotan ere.

4.3. Dirulaguntza eskaerak oinarri hauen eranskin modura erantsitako inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira, jarraian zehazten den dokumentazioa erantsita:

— Eskatzailearen NAN baliodunaren fotokopia.

— Eskatzailea Arabako udalerri batean erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

— Arabako Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

— Honako hauen egiaztagiria, finantza entitate batek emanda: bidesari telematikoak ordaintzeko erabiliko den banku kontua, eskatzailearena; ordainketako gailu telematikoaren erabilgarritasuna; gailuaren zenbaki osoa.

— Zirkulazio baimenaren fotokopia, ordainketarako gailuari atxikitako ibilgailuak ongi identifikatzeko; gehienez ere bi ibilgailu izan daitezke.

— Erantzukizunpeko adierazpena, ordainketarako gailuari atxikitako ibilgailuak lanbide, enpresa edo ekonomia jarduera bati atxikita ez daudelakoa. Eskaera orrian bertan dator.

— Erantzukizunpeko adierazpena, arau hauetako 2. artikuluko e) eta f) apartatuetan ezarritako prozeduretako batean ere ez dagoelakoa. Eskaera orrian bertan dator.

Dirulaguntza eskaera aurkezten den ekitaldiaren hurrengo ekitaldietarako, onuradunak ez badio uzten onuraduna izateari eta ez badago izaera horren kontrako ebazpenik haiek eskuratzeko betebeharrak ez betetzeagatik, ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriro aurkeztea.

4.4. Foru dekretu honen aurreko deialdietan onuradun izaera aitorturik daukatenentzat ez da beharrezkoa izango eskatutako agiriak berriro ere aurkeztea, salbu eta aldaketarik izan bada dirulaguntza emateko inguruabar erabakigarrietako edozeinetan edo onuradun izaeraren kontrako ebazpenik hartu bada haiek eskuratzeko betebeharrak ez betetzeagatik.

4.5. Arabako Foru Aldundiak, zuzenean edo Arabako Bideak SAren (Arabat) bidez, tratamendu-eragilea den aldetik, dirulaguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren datuak kontsultatu eta egiaztatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Halaber, eskabidearekin batera berariazko baimena emango zaio Arabako Foru Aldundiari, zuzenean edo Arabako Bideak SAren (Arabat) bidez, tratamendu-eragilea den aldetik, ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duela kontsultatu eta egiaztatu ahal izango du, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan ezarritako irizpideen arabera zehaztuta, bai eta zerga-betebeharrak betetzen dituela ere, urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.

4.6. Eskaera batek adierazitako baldintzak betetzen ez baditu, Arabako Bideak-Vías de Álava SA (Arabat) sozietate publikoak interesdunari eskatuko dio hamar egun pasatu baino lehen zuzendu dezala akatsa edo aurkez ditzala behar diren agiriak. Eskatutakoa egin ezean, uko egin diola iritziko da, horretarako esanbidezko ebazpena hartu ondoren.

4.7. Interesdunek eskubidea dute administrazio publikoen esku dauden edo administrazio publikoek egindako dokumentuak ez aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Dirulaguntzak emateko araubidea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak lehia libreko araubidearen pean emango dira. Onuradun izaera emango zaie oinarri arautzaile hauetako baldintzak eta gainontzeko arautegia betetzen dituzten eskatzaile guztiei.

6. Dirulaguntzen kudeaketa eta ordainketa

6.1. AP-1 eta AP 68 autobideen erabiltzaile arabarrei oinarri hauetan eta hitzarmenean ezartzen denaren arabera emango zaizkien dirulaguntzak Arabako Bideak-Vías de Álava SA (Arabat) sozietate publikoak kudeatuko ditu.

6.2. Hilero aurkeztutako eskaerak deialdian zehaztutako irizpideen arabera egiaztatu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak bidezkoa den ebazpena hartuko du. Haren barruan, onuradun izaera aitortu zaien eskatzaileak jasoko dira, baita ezezkoa eman zaien eskaerak ere, eta ezezkoaren zergatiak adieraziko dira. Hilabete pasatu baino lehen Arabako Bideak-Vías de Álava SA sozietate publikoak dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko die eskatzaileei; horretarako urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 40. artikuluan arautzen dituen bideak erabiliko ditu.

6.3. Dirulaguntzadun bidaldiak egiten diren egutegiko hiruhilekoa amaitu ondoko hilean, eta egiaztatu ondoren aldi horretan eskatzaileek betetzen dituztela foru dekretu honetan eskatzen diren betebeharrak, Arabako Bideak-Vías de Álava SA (Arabat) sozietateak aginduko du onuradunei hiruhilekoko dirulaguntzen zenbatekoak ordaintzeko, Arabako Foru Aldundiak onetsitako oinarriekin eta deialdiarekin bat etorriz.

6.4. Ez da jasotzen dirulaguntzaren aurrerakinak ordaintzeko aukerarik.

6.5. Deskontuak hilero aplikatuko zaizkio bidesaria ordaintzeko gailu telematikoa daukan pertsona fisiko bakoitzari. Dirulaguntzadun bidesariari atxikitzean erabiltzaileak ematen duen gailu telematikoaren arabera kalkulatuko dira deskontuak. Baldin eta gailua aldatu egin behar bada, hura galdu, matxuratu edo iraungi egin delako, erabiltzaileak horren berri eman dezake PAN (gailuaren zenbakizko identifikatzailea) berria eta behar adina justifikazio argibide aurkeztuta. Horrela, gorabeheraren jakinarazpenaren egunetik aurrera gailu berriarekin egindako bidaiak kontatuko zaizkio.

Dirulaguntza eskaera aurkezten den egunetik aurrera egiten diren osterei aplikatuko zaizkie dirulaguntzak, eta dirulaguntzadun osterak egin ondoko hiruhileko naturala amaitutakoan ordainduko dira.

7. Oinarriak onartzea

7.1. Dirulaguntzen onuradunek Arabako Bideak-Vías de Álava SA (Arabat) sozietate publikoaren eta Arabako Foru Aldundiaren egiaztapenak onartu beharko dituzte, eta Kontuen Epaitegiaren eta beste organo eskudun batzuen legerian ezartzen direnak ere bai.

7.2. Eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak deialdi hau arautzen duten oinarri guztiak onartzea, batetik, eta gainera, bestetik, baimena ematea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Bideak-Vías de Álava SA (Arabat) sozietate publikoari dirulaguntzen kudeaketarako behar diren datu pertsonalak erabiltzeko.

8. Aldaketa

8.1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar objektibo nahiz subjektiborekin loturiko aldaketak izanez gero, onuradunak haien berri eman beharko dio ARABATeri.

8.2. Dirulaguntza ematen duen organoak ofizioz aldatu ahal izango du emakida ebazpena, interesduna entzun ondoren eta funtsak aplikatu baino lehen, baldin eta, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu direla nabarituta, haiek eragotzi edo zaildu egiten badute lortu nahi den interes publikoa erdiestea.

9. Itzulketa

Onuradunek eskuratutako dirulaguntzak itzuli beharko dira dirulaguntzen araubide juridikoa ezartzen duen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren II. tituluan ezarritako arrazoiengatik.

10. Garapena

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatu titularrak deialdi hau garatzeko beharrezkotzat jotzen diren ebazpen guztiak emango ditu. Gainera, datuak egiazkoak diren eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den argitzeko ekintzak bideratu ahal izango ditu.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

11. Oinarriak betetzea eta zehapen araubidea

Dirulaguntza lerro hauen onuradunek bete beharko dituzte Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen dituen eskakizunak, bai eta oinarri hauetako betekizunak eta baldintzak ere. Haiek ez betetzekotan, foru arau horren IV. tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

12. Arau hausteak eta zehapenak

Programa honetako dirulaguntzei buruz aplikatzeko den arau hauste eta zehapen araubidea 11/2016 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa izango da.

13. Beste dirulaguntza batzuekin bateratzea

AP-68 autobideko dirulaguntzak eta AP-1 autobidekoak bateragarriak dira bere artean.

Hala ere, bateraezinak izango dira helburu bera duten beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

14. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruko auziak Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak ebatziko ditu.

15. Aurkaratzea

Deialdi honen aurka nahiz beronen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta eran.

16. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako honako hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; 18/1997 Foru Dekretua, dirulaguntzen eta administrazio kontratazioaren inguruko zerga betebeharren frogabideen konkordantzia arautzen duena (urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatzen du); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araudi Ekonomikoari buruzkoa, indarreko Aurrekontu Antolaketa; urriaren 1eko 39/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplika daitezkeen diren gainerako arauak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

AP-1/AP-68KO BIDESARIRAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ESKATZAILEAREN NORTASUN DATUAK: ☐ **AP-1** ☐ **AP-68**

NAN	*Izena*	*1. deitura*		*2. deitura*		
Helbidea (kalea edo plaza)		*Zk.*	*Letra*	*Eskailera*	*Solairua*	*Aldea*
Udalerria	*P.K.*	*Probintzia* **ARABA / ALAVA**		*Telefonoa*		
Gailu Telematikoaren Zk.						
Banku Kontuaren Zk.						
1.Ibilgailu	*1.Matrikula:*	*1.Marka:*	*1.Ibilgailu eredua:*	*1.Ibilgailu kolorea:*		
2.Ibilgailu	*2.Matrikula:*	*2.Marka*	*2.Ibilgailu eredua:*	*2.Ibilgailu kolorea:*		
E-posta / E-mail						

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- ☐ *Arabako udalerri batean erroldatuta egotearen ziurtagiria*
- ☐ *NANaren fotokopia*
- ☐ *Finantza erakundeak emandako egiaztagiria, bidesari telematikoak bideratuko diren pertsona eskatzailearen banku kontuarena (20 digituak), eta ordainketarako gailu telematikoaren (digitu guztiak) erabilgarritasunarena.*
- ☐ *Arabako Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak betetzen egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria*
- ☐ *Zirkulazio baimena, ibilgailuaren datuak identifikatzeko*

Behean izenpetzen duenak eskatzen du Arabako Lurralde Historikoan bizi diren goian aipatu dudan autobidearen erabiltzaileek ordaindutako bidesarirako dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarrietan aurreikusitako dirulaguntzen onuraduna izatea.
OHARRA: Adierazi nahi dizugu, kontu zenbakia edo gailu telematikoaren zenbakia aldatuz gero, Arabat-i jakinarazi beharko zaiola, egiten den egunean bertan; horrela egin ezean, jakinarazten den egunetik aurrera sortzen diren deskontuen onurak bakarrik jasoko dituzu.

- ☐ Baimena ematen dut diruz lagundutako erabili ditudan tarte guztien berri izan dezaten, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko eta hura justifikatzeko.
- ☐ Baimena ematen diot Arabako Foru Aldundiari, zuzenean edo Arabako Bideak-Vías de Álava S.A.ren bidez (Arabat), tratamenduaren arduradun gisa, dirulaguntza lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren zerga-datuak kontsultatzera.
- ☐ Aitortzen dut jakinarazitako matrikulak ez direla lanbide-, enpresa- edo ekonomia-jarduerari, lotutako ibilgailuenak.
- ☐ Aitortzen dut ez nagoela diru-laguntza hau arautzen duten oinarrietako 2. artikuluko e) eta f) letretan ezarritako prozeduretako batean ere

Eskatzailearen izenpea

_____(e)n, 20____ko _____aren ___(e)an

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren zuzendaritzak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, emandako datu pertsonalak tratatuko ditu, AP-1 eta AP-68 autobideetan ordaindutako bidesaria konpentsatzeko dirulaguntzak kudeatu, izapidetu, egiaztatu, kontrolatu eta, hala badagokio, ordaintzeko. Datuak Arabako Bideak-Vías de Álava, S.A.k tratatu ahal izango ditu (Arabat), tratamenduaren arduraduna den aldetik, dirulaguntza horiek kudeatzeko Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenarekin bat etorriz.
Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian aitortutako gainerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Arabako Foru Aldundiak gaitutako kanalen bidez..

ARABAT (Arabako Bideak - Vías de Alava S.A.)
C/Vicente Goikoetxea nº 1, 1º oficina 4
01008 Vitoria-Gasteiz
Tfn.945.13.46.90 - Fax: 945.77.45.59
subvenciones@arabat.org

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.13 06:19:05 Z